

Free Derry-ko Museoa

**Itzuli mesedez gida hau harrerako mahaira museoa utzi
aurretik. Mila esker**

1. Free Derry-ko Museoa

Free Derry-ko (Derry Askeko) Museoa, Igande Odoltsua Fundazioak (Bloody Sunday) sortu zuen 1960 eta 1970 urteetan eskubide zibilen mugimendua eta Free Derry-ren sorreraren historia azaltzeko helburuz.

Museo honetan, zapalkuntza jasan baina bere aurka oldartu zen langile komunitate bateko pertsonen historia kontatzen da. Historia hau, pertsona horien ikuspuntutik kontatzen dugu, beraiek bizi izan zuten modura.

Museo hau ordea ez da artxibo historiko bat soilik. Museo hau ikustera datorrenari, Derry Askearen aldeko borrokaren historia ikasteko aukera emango dion heziketa gune era izan nahi du, guk beraiengandik jaso genuen bezala.

Irudiak:

- **Herri Demokrazia taldearen (People's Democracy) afixa Igande Odoltsuaren (Bloody Sunday) ondoren egina.**

2. Free Derry-ko Museoa

Irlandan, eskubide zibilen aldeko mugimenduaren sustrairik sakonenak Derry-n kokatzen dira. Ipar Irlandako eskubide zibilen arazoa mundu guztiaren agerian hemen agertu zen 1968ko urriaren 5ean poliziak manifestazio baketsu bat Duke Street-en erasotu zuenean.

Hemen izan zen ere segurtasun indar britainiarrei eremu itxia aldarrikatu zitzaizen (“no-go areas” izenekoak) lehen aldia, 1969ko urtarrilean Bogside auzoko etxaurre batean “Orain Derry Askean sartzen ari zara” lema erronka eginez agertu zenean.

Hau, boterea kendu arren herritar orok justizia, berdintasuna eta askatasunaren eskubidea izango zuten mundu ezberdin batetan amets egitera ausartu zen komunitate baten historia da, bizi zuen egoerari oldartu eta Estatu boteretsuari aurre egin zion komunitate baten historia. Museo eta artxibo honetan komunitate honen ondarearen zati bat dago. Atsedetik gabeko borroka demokraziaren alde. Museo hau, mundu osoan zehar eskubide zibilak erdiesteko borrokatu eta sufritu duten guztiei eskainia dago.

Irudiak:

- **Free Derry-ko kantoia**
- **Kim Phuc Igande Odoltsuko oroitarrian lore koroa bat ezarri ondoren. Kim Phuc txikia zenean, Armada estatubatuarrak Vietnamgo Trang Bang bere herria Napalmarekin bonbardatu ondoren herritik ihesean agertzen zen argazkiak munduari bira eman zion.**

3. Komunitate desjabetu bat

Bogside-eko historia bi komunitateen arteko harremanak markatua izan da: alde batetik komunitate boteretsu, babestu eta egonkorra harresi barruko hirian bizi zena. Bestaldetik, komunitate desjabetua, boterez hustua eta zapaldua.

Hasiera batean, ondoren komunitate desjabetu hau biziko zen eremua urez estalia zen. Derryko irlaren ingurua zioan Foyle ibaia desbideratu eta eremua lehortu zenean, lur zingiratsu bat azaleratu zen. Hortik datorkio Bogside izena. Eremu honen gaur eguneko izenaren lehen erreferentziak Sir Henry Docwra-ren txostenean agertzen dira, Derryra 1600 urtean iritsi zen indar ingeles bateko komandatea.

Bogside-en erregistratutako lehen kolonoak, 1622ko txosten batean zerrendatuak agertzen diren 61 familia britainiar dira. Gogoratu behar da eremuko biztanle irlandarrak ez direla txostenean agertuko, hauek ez baitzuten “kontatzen”.

Bogside eta harresi barneko hiriaren arteko harremanak etsai artekoak izan ziren. 1608an Donegal-eko buruzagiak, Cahir O’Doherty-k, ingeles kolonia erasotu eta suntsitu zuen, erasotzaileak zingira zeharkatu ondoren. 1688-89an beste setio bat eman zen indar erasotzaile gehiengoa orain Bogside, Brandwell eta Creggan en kokatu zirelarik – gero “Free Derry” bezela ezagutuko zen gunean.

Irudiak:

- **Garaiko mapak Foyle ibaia Derry-ko irlaren inguruan dela eta hiri harresituaren mendebaldean zingira bat sortuaz.**

4. Komunitate desjabetu bat

XVIII. mendeko etorkinen jarioak katolikoek kopuru esanguratsu bat ekarri zuen Derryko hirira. Hala ere, katolikoek debekatua zutenez harresi barneko hirian bizitzea, Bogside-en kokatu ziren gehiengoa.

XIX mendearen hasieran Bogside auzo gainpopulatua eta nagusiki katolikoa zen. Etxe txikiz eta familia ugari osaturiko auzoa. Adibidez, 1832an, Abbey Street-en 43 etxetan 63 familia bizi ziren eta Fahan Street-en 164 etxetan 244 familia.

1840ko urteetako patataren gosetearen zehar, etorkinen jario berri batek Derryko hiriaren gehiengoa katolikoa izatera pasatu zen. Mende honetan zehar hasiko dira azaltzen tirabira sektarioak. Horrela, 1869an, hiru lagun fusilatuak izan ziren komunitateen arteko liskar batzuetan zehar. Urte honetan bertan sortzen da Langile Katolikoek Defentsarako Elkarteak.

XIX. mendearen amaieran, katolikoak Derryko hautesleen gehiengo garbia ordezkatzeko zuten, nahiz eta hauek botere politikorik ez izan. Londonderry-ko Hobekuntzarako Legeak (1895) hiria hautes-barrutietan banatu zuen, katolikoek kontseilu lokaleko (Londonderryko Korporazioa) 40 kideetatik 16 bakarrik aukeratzeko zituztela ziurtatuz.

Irudiak:

- **Bogside-ko ikuspegia Butcher's Lane, 1830**
- **Bogside-eko mapa 1830ean**

5. Komunitate desjabetu bat

XX. mende hasierarako Derry katolikoan irlandar nazionalista parlamentarioak ziren nagusi. Buruzagi nazionalista eta klero katolikoak errepublikar usaia zerion edozer ekidin nahi zuten, baita Kirol Gaelikoen elkarteari (GAA) ere eragin errepublikarra izan zezakeelakoan.

1916ko bazko igandeko altxamenduan (Easter Rising) Derry-ko 9 herritar giltzapetuak izan baziren ere, 1917arte ez zen Sinn Fein-en (Gu geu) klubik sortu. 1918an nazionalistekin paktu elektorala egin ondoren Sinn Fein-ek lortu zuen Westminster-eko parlamenturako Derry-ko aukia. 1920an, aliantza honek, udal hauteskundeetan gehiengoa izatea ziurtatu zuen eta Hugh C O'Doherty bihurtu zen 1688tik ordurarteko lehen alkate katolikoa. 1922an ordea, hautes barrutien legeak gutxiengo unionistaren agintea berrezarri zuen. Egoera honi erantzuteko, zinegotzi nazionalistek, korporazioa boikotatu zuten hurrengo 10 urteetan.

Independentziaren gerrak (1919-1921) tentsioa areagotu zuen Irlandan zehar. 1920ko udaberri eta udaran 40 lagun izan ziren erailak Derry-n, errepublikar eta loialista eta britainiarren arteko aliantzaren arteko gatazketan

Irlandako Gobernuaren Legea 1920an onartua izan zenean eta lurralde zatiketa errealitate bihurtu 1921ean, Derry-ko abertzaleak abandonatuak sentitzen dira, errealitate berriarekiko uzkur.

Irudiak:

- **Britainiar armada satizirizatzen zuen mural politikoa, Abbey Street 20. hamarkadan**
- **Hugh C O'Doherty, Derry-ko alkate katolikoa 1920an , 1688tik postu hori lortu zuen lehen katolikoa.**
- **James McGlinchey komandantea, Derry-ko 1. erregimenduko Blondres Irlandarrak, Celtic Park, 1914**

6. Komunitate desjabetu bat

Partizioaren ondoren, Alderdi Unionistak “estatu protestante bat herri protestante batentzako” eraikitzeari ekin zion. “Diskriminazio sektarioaren, administrazioa partzial eta legedi totalitario amaigabeaz unionismoa babesteko xedeaz eratu zen estatuak injustizia sozial sentipen sakona barreiatu zuen herritar ez unionisten artean” (NICRA, Ipar Irlandako Eskubide Zibilen Elkartearen 1978)

Buruzagi unionistek iparraldean, Katolikoei zerbait ematea Protestanteei zerbait kentzea zelako sinesmenean gobernatu zuten. Langile protestanteei, katolikoek berdintasuna, beraien posizioaren aurkako mehatxu moduan ikusarazi zitzaizkien. Katolikoak praktikoki funtzio publikoko lanpostuetatik baztertuak izan ziren eta enpresa pribatuak, gizon eta emakumezko loialistak kontratatzeraz “bultzatzen” ziren.

Ez zen Gobernu unionistarekiko oposizio eraginkorrik onartzen. Botere Berezien Legeak (Special Power Act), poliziak eta polizia gorputz bereziak (Special Constabularies)-funtsean militante unionista armatuak eta uniformatuak- tresna politiko sektario moduan erabiliak ziren. Une batean, iparraldeko bi familia katolikoko polizia bat izatera iritsi ziren.

Stormonteko gobernuaren 50 urtetan zehar, ondoz ondoko gobernu britainiarrek- iparraldearen gaineko azken hitza mantentzen zutenak, Stormonteko gobernuaz “ikusten ez dena, ez da existitzen” barne-pentsaerarekin jardun zuten.

Irudiak:

- **Unionist Party (alderdi unionista) eta B Specials-en arteko harreman bereziari eztena sartzeko dion afixa**
- **Bogside 1960an**

7. Komunitate desjabetu bat.

Derry zen iparraldeko estatuaren diskriminazio anti katolikoaren adibiderik latzena.

Hirugarren hautes barrutien lege batek gehiengo nazionalistak udaleko 20tik 8 kide soilik aukeratu ahal izango zituztela ziurtatu zuen. Etxea jasotzeak udal hauteskundeetan bozka eskubidea zekarren berarekn. Nori eta non etxea ematerako orduan beraz, unionisten nagusitasuna bermatuko zuen aritmetika sektarioa zen oinarri eta giltza. Etxeen alokairuak pertsona baten erabakiaren menpe zeuden: alkate unionista. Bogside-ek gainezka egin zuenean, Creggan eraikitzeari ekin zioten 1947an. Muino garai eta haizetsu bat izaki, etxeak eraikitzeko toki desegokia zen ikuspegi guztietatik, hego barruti barruan egoteagatik ez balitz. Ez eliza katolikoak, ez Nationalist Party-k (alderdi nazionalista) ez zuen oztopo esanguratsurik ezarri Creggan-eko proituerekiko. Antolamendu berri honek, katolikoak, "beraien" eliza eta eskola propioen inguruan bilduta mantentzen zituen. 1945 eta 1960 urteen artean katolikoei alokatutako etxeen %92-a hegoaldeko barrutian izan ziren.

Enplegu kontratazioan ere Derry-k, izaugarritzko diskriminazioa bizi izan zuen. Politiko unionistek, industria, barruti unionistetara bideratu zuten. Iparraldeko langabezi tasaren batzbestekoa %8-a zen bitartean, barruti abertzaleetan tasa hori oso goitik zebilen, Derry-n adibidez, %20 gainditzen zuen langabezi tasak.

Irudiak:

- **Creggan hegoaldeko barrutian katoliko gehiago pilatzeko sortu zen.**
- **Bogside gainpopulatua.**

8. Komunitate desjabetu bat

Derry abertzalea eguneroko politiko etsitu batean murgildu zen 60ko hamarkadan. Ia zinegotzi eta parlamentuko kide (MP) ez unionista guztiak Nationalist Party-ko kideak ziren. Eliza katolikoaren babes osoarekin, Nazionalistak aukeratuak baino izendatuak izaten zirela esaten zen.

Lurralde zatiketa edo partizioaren ondoren errepublikanismoa egunerokotasunetik desagertu egin zen, "aintzinako" borroketako beteranoen talde txikietara mugatuz. Nationalist Party-ren alternatiba nagusia, sindikatu eta laboristengan zegoen baino ez zuen arrakastarik izan.

Eamon de Valera-k 1951-n Derry-ra egin zuen bixitak sentimendu abertzalea berpiztu zuen. Urte berean, San Patrick egunean, manifestariak ikurrina irlandarra (berdea, zuria eta laranja, hiru koloreduna edo tricolour-a ere deitua) harresi barruko hirira eramaten saiatu ziren baina poliziak jipoituta eta kaletik egotziak izan ziren. Berdina gertatu zen hurrengo urtean ere.

40. eta 50. hamarkadan epaiketarik gabeko atxilotze eta giltzaperatzea (Internamendua) berriro ere martxan jarri zuten errepublikarren aurka. IRAren ekintzak ordea urriak izan ziren hirian, baita 1956 eta 1962 arteko IRAren "mugen kanpaina"-k iraun zuen tartean ere. Zenbait herritarren aurkako "internamendua"-k sumindura handia sortu arren, ez zen protesta masiborik. Lau hamarkadetako zapalkuntzaren ondoren, Derry-n abertzaleak, zuzendaritza eraginkorrik gabe hasi zuten 60ko hamarkada.

Irudiak:

- **De Valera Derry-n**
- **Bishop Street 1940an. Hemen Erregerik ez.**
- **St Columbs-eko putzuak Bogside-en.**

9. Komunitate desjabetu bat

60.hamarkadan sartzeko zorian, Harold Macmillan lehen ministro britainiarrak "inoiz baino hobeto gaude" bota zuen harrokeriz. Derry-n ordea, herritarrak, beti bezain gaizki jarraitzen zuten.

Soilik etxea zutenek bozkatu ahal zuten udal hauteskundeetan. Negozio jabeek berriz bozka bat baino gehiago zuten. Hautes barrutien legearen sistemak martxan jarraitzen zuen oraindik. % 67ko gehiengo abertzalea zuen hiria unionisten agindupean jarraitzen zuen oraindik beraz.

Sistema honek gainera, bestelako ondorioak ere bazituen. Hegoaldeko barrutiko %20a baino gehiago ofizialki gainpopulatuak klasifikatutako etxeetan bizi ziren, iparraldeko barrutian %6 azpitik eta Waterside barrutian %8an zebilen bitartean. Herriko mediku batek, Walker's Square-en eraitsi beharrean zeuden etxe bateko bi geletan 26 lagun bizi zirena dokumentatu zuen. Udala, Hegoaldeko barrutian abertzale gehiago estu-estu bizitzen jartzeko lekurik gabe gelditu zenean, Rossville Flats dorreak eraiki zituen, kanpora edo zabaletara ezin zutena goraka eraikiaz.

Langabeziak sustriak bota zituen. Langabezi tasak %20a gainditu arren, 6 lantegi soilik eraiki ziren. Aldiz, Lurgan-en %6ko tasarekin 13 lantegi eraiki ziren eta 10 Bangor-en %4ko tasarekin. Derry-ko langile klasearentzat etorkizuna inoiz baino ilunagoa aurkezten zen. Emakumeentzat ator lantegietan lan pixka bat bazegoen ere, gizonezkoen langabezi tasa %30 inguruan zebilen.

10. Eskubide Zibilak.

1955ean Rosa Parks-ek uko egin zion autobusaren atzealdean esertzeari Birmingham-en, Alabaman.

1957-an Guardia Nazionalak 9 ikasle beltz babestu behar izan zituen manifestari arrazisten aurretik pasatzeko eskolara bidean Little Rock-en, Arkansas.

1960ko martxoan, apartheid-aren aurkako 60 manifestari beltz tirokatu eta erail zituzten, Shaperville-en, Hegoafrikan.

1963ko abuztuan, eskubide zibilen aldeko 200000 jarraitzaile elkartzen dira Washington-en, Martin Luther King-en “Amets bat dut” aldarrikpena entzuteko, Bob Dylan-ek “Only a pawn in their game” (Soilik peoi bat beren jokoan) aurkezten du, politikari arrazistek zuri behartsuak manipulatzeko dituztena nabarmenduz.

Mundu zabalean ematen ari diren gertaeretatik, Derry-k Estatu Batuetan, Hegoafrikan eta justiziaren aldeko beste borrokez oharra hartzen du. Zenbaitzuk borroka hauek eredu hartzeaz hausnartzen dute, bertan bizi dutena konpontzera begira.

1963-an Dunagannon herrian, Tyrone Konderrian, etxebizitzeko eskubideen aldeko manifestariak udal batzar kanpoaldean elkartu ziren pankartekin: “Gure erlijioetatik baztertu behar bagaituzue, bidali gaitzazue Little Rock-era”. Manifestaldi honek, “Campaign for Social Justice” (justizia sozialaren aldeko kanpaina) sorrera eragin zuen, Iparraldeko eskubide zibilen aldeko lehen antolakundea.

“We Shall Overcome” (Irabaziko dugu) Irlandako eskubide zibilen aldeko mugimenduaren aldeko ereserkia bihurtu zen.

Irudiak:

- **1955-ean Rosa Parcks-ek hartu zuen jarrera oroitarazten zuen afixa.**
- **Eskubide Zibilen aldeko martxa Estatu Batuetan**
- **Martin Luther King**

11. Eskubide Zibilak

1963-an Terence O'Neill "liberalak" Lord Brookeborough tradizionalista ordezkatu zuen iparraldeko lehen ministro unionista bezela. Sean Lemass pragmatikoa, De Valeraren ondorengoa, izan zen Stormont bisitatu zuen lehen Taoiseach-a (Hego Irlandako lehen ministroa).

Unionismoaz interes berezirik ez zuten industria multinazional berrien agerpenak kontratazio justua iragartzen zuela zirudien. Baina O'Neill-en agindupean eman zen modernizazioak ez zion Derry-ri onurarik ekarri.

Hiriko bi tren loturetatik bat, Dublinerako Great Northern Line, bertan behera utzi zuten Benson-en txostenaren ondorioz 1964-ean.

Urte berean, Mathew planak, Portadown/Lugan iparraldeko garapenerako zentro nagusizat izendatu zuen Derry-ren kaltetan. Herri berri bat, Craigavon, proposatu zuten.

Lockwood txostenak bigarren unibertsitatea iparraldeko bigarren herriari esleitu beharrean, Derry-ri alegia, Coleraine unionistari eman zion. 1965ean, profesional eta negozio jabe katolikoek Belfastera egin zuten kotxe karabana baten bidez, erabakiari buelta ematen saiatu ziren, arrakastarik izan ez zuten arren.

1967-an, hegoaldeko barrutiko enplegatzaile handienak, Birmingham Sound Reproducer (BSR), 1951tik Bilgh's Lane-en kokatua, itxi egin zuen 1000 lagun langabezira bidaliaz. Hiriko langabezi tasa 1966 martxoan gerra ondoko %10,1era jaitsia zena, bat batean % 20,1-era igo zen. Normaltasuna berriro ere.

Irudiak:

- **Unibertsitateko kanpainako kideak, tartean John Hume eta Eddi McArteer, Stormont kanpoaldean.**
- **"Derry-rentzat Unibertsitatea" kanpaina Guildhall Square-en 1965ean.**

12. Eskubide Zibilak

1967ko BSRren itxierak, sindikatuen aldetik Derry Unemployed Action Committee (DUAC), Derryko Langabetuen ekintza komitearen sorrera azkartu zuen. Pikete, elkarretaratze eta protestak antolatu ziren.

The Derry Housing Action Committee (DHAC), Derryko Etxebizitza ekintza komiteak jarraitu zuen. Hasiera batean Magee College-en sortua ezker muturreko talde baten eskutik, DHAC-ak laster lortu zuen errepublikarren eta beste herritar batzuen babesa, bere ekintza zuzenaren estrategiaren bidez. Kide esanguratsuak parte hartu zuten, tartean Brigid Bond, ondoren Derry Civil Right Associationeko mahaiburua izango zena Bloody Sunday garaietan. Harvey Street-eko etxe baten okupazioak, familia bat etxetik kaleratzea ekidin zuen. Etxerik gabeko familientzat erabiltzen ez ziren etxeak okupatzen ziren. Ekitaldi zibilak eta taldeko bilerak oztopatu eta etetea ohikoa bihurtu zen.

North Ireland Civil Right Association (NICRA), Ipar Irlandako eskubide Zibilen aldeko Elkarteak, 1967ko urtarrilean sortu zen Belfast-en batzar publiko batean. Hamahiru kideko batzordea osatu zuten artean Dungannon-en kokatutako Justizia Sozialaren aldeko batzordea, Klub errepublikarren, Ipar Irlandako alderdi laborista (NILP), Ulsterreko alderdi liberala, Irlandako alderdi komunista eta Irlandako sindikatuen kongresuko ordezkariak zeuden. NICRA areriotzat jo zutenez, Nationalist Party-k uko egin zion parte hartzeari.

NICRAren sorrerak, Derryko aktibistak mugiarazten zituzten gaiek, ikuspegi eta eragin zabalago bat zutela agerian utzi zuen. Elkarte berriaren lan eremu asko ordea jada, DUAC (langabetu elkarteak) eta DHAC-k (etxebizitza elkarteak) betetzen zituzten. 1970 urtera arte NICRA-ren adarrik ez zen Derry-n martxan ipini.

Irudiak:

- **DHAC-ren protesta bat Guildhall-en 1968an.**
- **Guildhalleko despatxuen aurrean eserialdi protesta bat etxegabeko familien aldetik.**
- **DHACren protesta bat Bishop Streeteko justizia jauregia atarian.**

13. Eskubide Zibilak

Politika erradikalaren indartzeak asaldatuta, Dr. Neil Farren-ek, Derryko apezpiku katolikoak, 1968ko pazkoko gutun pastoralean gazte katolikoak ohartarazten zituen “ez zaitezte jendilajeak eragiten utzi”.

Abuztuan, NICRAk, iparraldeko eskubide zibilen aldeko lehen martza antolatu zuen, Coalislan-etik Dungannon-era. Poliziak Dungannon herriko erdigunea itxi zuen. Istilu bortitzak (gerora izango zirenak kontuan hartuta nahiko lasaiak izan baziren ere) lehen mailako albiste bihurtzen dira ipar eta hegoaldean.

DHACKo kideek NICRAkoekin kontaktuan jartzen dira, Derry-ko eskubide zibilen aldeko martxarentzat babesa eskatuaz. Okasiorako batzorde bat eratzen da. Batzorde hau DHAC, Derryko NILPeko taldea, NILPeko gazte sozialistak, klub errrepublikarrak eta James Connolly elkarteko kideez osatzen da. Martxaren hitzordua urriak 5, larunbaterako zehazten da.

Urriaren 3an, Stormonteko gobernuak martxa debekatzeko du ordenu publikoaren legedian babestuz. Urriaren 4ean, martxarako sorturiko batzordeak, NICRAren Belfasteko eta beste tokietako zuzendaritzari kasurik egin gabe, debekuari aurre egitea bozkatzeko du.

Martxa, 500 bat lagunez osatua, eta tartean Belfasteko Queen's Universityko ikasleak zirela, polizi artean harrapatuta gertatzen da eta porrekin eta urrezko mangerekin jipoitu eta sakabanatzen dituzte Watersideko Duke Streeten.

Derryko anti-Unionisten gutxiengo batek babestu zuen martxa, baina atzera begiratu, poliziaren biolentziak sortu zuen amorrak, gehiengoaren babesa izatea ekarri zuen.

Irudiak:

- **Urriaren 5eko afixa. Kartela gorri, zuri eta urdinean inprimatu zen langileri protestantea martxara erakartzeko asmoz.**
- **Poliziak eskubide zibilen aldeko martxako kideak atxilotzen Duke Streeten, 1968ko urriaren 5ean.**

14. Eskubide Zibilak

Poliziak martxari eginiko erasoaldiak unionisten agintearen egia, munduan zeharreko telebista pantailetara barreiatu zuen.

Urriaren 9an, Derryko pisuzko 15 gizonek Derryko Hiritarren Ekintza Batzordea (DCAC) osatu zuten, enpresa gizon katoliko eta protestanteak eta urriaren 5eko antolatzaileak barne. Shiela McGuinness ere gonbidatu zuten batzordera emakumeen kexen ondoren, emakumeen askapen mugimenduko lehen urratsak agerian geldituaz.

Queen's Universityko ikasleek People's Democracy (Herritarren Demokrazia) eratzen dute ekintza zuzenaren bidez aurrera egiteko. Urriaren 5eko ibilbide berdina eginez, 10.000 lagunek, DCACk antolatutako martxan modu baketsuan parte hartzen dute. NICRAk manifestazio ezberdinak antolatzen ditu zenbait tokitan. Hainbat, poliziekin gertaturiko istiluekin amaitzen dira.

Azaroan, O'Neillen gobernuak erreformak proposatzen ditu, Special Powers Act-en, botere berezien legedia, berrikuspena, Londonderryko korporazioaren desagertzea eta udal hauteskundeetan bozka emateko eskubide unibertala barne. O'Neill-en alderdi barneko erreformaren aurkako unionistak erresistentzia hitz eman zuten. Dr. Ian Paisley-k kale protestak gidatzen ditu eta odol isurtzea iragarri.

DCAC-ek martxak moratorian uzten ditu O'Neillen proposamenei aukera bat ematearren. Baina urte berri egunean, People's Democracy Belfastetik Derry arteko martxa batean abiatzen dira. Martxako kideak loialistengatik behin eta berriro erasotuak dira. Burntollet-en, Derry kanpoaldean, polizia elkartzen zaie loialistek erasoan.

Bogside haserre zegoen. Gazteek barrikadez inguratu zuten eremua. Urtarrilaren 5eko goizeko orduetan, polizien erasoaldiak, erresistentzia masiboarekin topo egiten du.

Irudiak:

- **Martxako kideak zaurituta, loialistek eta B-specials-ek Belfastetik Derryrako People's Democracyko martxa erasotzean. Erdian Tommy Carlin.**
- **Urriaren ehundaka gutxi parte hartu zuten martxan, Azaroan 10.000-k.**
- **Belfast Telegraph, 1968ko azaroaren 27an**

15. Free Derry

Berkeley University-ko eserialdi batetatik hartutako lema bat, horma oker batean idatzi zen: "Free Derry-n (Derry Askean) sartzen ari zara". Free Derry irratiak, Rossville Streeteko pisuetatik emititzen du. Free Derry sortu zen.

Polizien erasoaldiei aurre egiten zaie, eta gehienetan bertan behera gelditzen dira.

Otsaileko Stormonteko hauteskundeetan, DCACko mahaiburuaren albokoa zen John Hume-ek, Eddie McAteer Nazionalistari irabazten dio Foyle-n. Eskubide Zibilen aldeko hautagaiak, emaitza onak lortzen dituzte toki guztietan. Unionismoaren barnean erreformaren aurkako hautagaiak indartuta ateratzen dira.

Terence O'Neill, James Chichester-Clarke komandanteak ordezkatzeko du.

Erreformaren aldeko eskaria eta aurkako jarrera parez pare hazten dira. Hainbat herritan eskubide zibilen aldeko manifestari eta unionisten arteko liskar eta gatazkak ematen dira. Poliziak unionistekin batera jarduten du.

Apirilaren 19an, polizia oldar bizian William Streeteko etxe batera sartu eta Sammy Devenny (42) eta bere familia kolpatu zituen. Brandywell-en, polizia batek pistola atera eta bi tiro bota zituen- gatazkaren lehen tiroak ziren hirian.

Egoerak, DCAC, jardun konstituzionalaren bidez helburu apalak lortzeko sortu zena, mapatik desagerrazten du.

Boyne-eko bataila ospatzeko martxa orangistak istiluak piztu zituen uztailaren 12an. Unity pisuetan, Belfasten, elkarri tiroka aritzen dira. Armada Britainiarra alerta egoeran jartzen dute Derry-n.

Sammy Devenny uztailaren 16an hil zen. Bere hiletak Bogside-en inoiz ikusi ziren handienak izan ziren.

Irudiak:

- **Eskubide zibilen aldeko afixa James Chichester Clarken (lehen ministro unionista) satira batekin 1969an**
- **Lecky Road 33ko paretan eginiko pintada bat.**
- **Free Derry irratia**

16. Free Derry

Uztail bukaeran, Klub Errepublikarrak Derry-ko Biztaneleen Defentsarako Elkarteak (DCDA) Derry-ko Biztanleen Ekintza Komitea (DCAC) ordezkatu zuen. Elkarte honen helburua, eremua defendatzea izango litzateke. Bogside-en ari diren aktibista talde ia guztiek onartzen dute.

Orduan hasten dira abuztuaren 12an eman daitezkeen edozein sartze saiakerari aurre egiteko prestaketak, Apprentice boys-ek hirian zehar eginiko prozesio batek, 1688ko

setioa gogoratu eta ospatuko dutenean. Eremuko sarreretan kokatutako molotov-ak jaurkitzen hasiko dira barrikadak egiteko materialarekin batera.

Abuztuaren 2an polizia eta talde loialistek Unity Flats-ei, Belfasten, eginiko erasoak beldurra indartzen du Derry-n

Apprentice Boys-en prozesioa, Derryko unionistek, beraien arbasoek erregien despotismo eta eskubide jainkotiarren aurka mantendu zuten jarreraren ospakizun bezala ikusten zuten. Bogside-eko biztanleentzat berriz, beraien auzoan bertan zuten bigarren mailako herritar izaera gogorarazteko urteroko ekimena. Halere, azken gertakariak, urtero ematen zen egoera horrekiko leudekeen etsipen oro desagerrarazi zituen.

DCDA-ko lehendakaria zen Sean Keenan-ek, joku gaelikoen estadio den Celtic Park-en

zera esan zuen: "borrokatu behar badugu, borroka dezagun mesedez bakea maite duen herri bat bezala".

Uztailaren 12an, tropa britainiarrak alerta egoeran jartzen dira, poliziak ordena ezin badu mantendu edozein momentutan esku hartzeko xedez.

Irudiak:

- **Polizia Bogside kanpoaldean, 1969ko uztaila**
- **Sammy Devennyren hiletak, 1969ko uztaila.**
- **1969ko urtarrilean Bogside erasotu zuten polizia ofizialak mozkortuta zeudela azaltzen zuen berria agertzen duen murala.**

17. Bogsideko Borroka

Abuztuaren 12-an, milaka Apprentice Boys, ardura eta desadostasuna nagusi zen Derrytik martxa bat egiteko prestatzen ziren.

Martxa Bogside-etik pasatzean oihuka eta harrika egin zitzaion ongietorria. Poliziak, loialisten laguntzaz, errebeldeak atzerantz egitera behartzen saiatu ziren.

Beste aldietan ez bezala ordea, oraingoan, Bogside-eko biztanleak prestatuta zeuden. Aurrez zeuden barrikadak indartu egin ziren berriak egitearekin batera eta koktel molotovak eta harriak erruz pilatu zituzten.

Barrikadak, 3 egun eta 2 gauetako borrokaren ondoren zutik zirauten. Gunea arrakastaz iparraldeko estatutik banantzea lortu zen. Free Derry (Derry Askea) berriro berpiztu zen. Ehundaka gazte errebeldek, komunitate osoaren laguntzaz, Rossville Flats-eko teilatutik eremuko perimetroa defendatu zuten. Ladreilu eta koktel molotov-ak porra, pistola eta kotxe blindatuen aurka. Poliziak 1000 negar egin arazteko gasezko poto baino gehiago bota zituen.

Abuztuaren 14an, Bogside-eko biztanleek, pott eginda zegoen polizia hiri erdialdera atzerarazi zuten. Une beran B-Specials-ak (Ulsterreko polizia berezia) polizia lerroaren atzekaldean mobilizatzen hasten dira.

Abuztuaren 14ko arratseko 4-etan, Derry, Bogside eta B-Specialsen arteko gatazkarako prestatzen ari zenean, Galeseko printzearen erregimentuko soldaduak eremuan hedatzen dira.

Irudiak:

- **Negar egin arazteko gasen jasa Bogside babesten ari zirenen aurka.**
- **Gazte taldeak Rossville Flatseko teilatuan lekua hartzen**
- **Bernadette Devlin Rosville-eko barrikadan 1969ko abuztuaren 12an.**

18. Bogsideko borroka

Liskarrak ugaltzen direnarekin batera, DCDA babes bila hasten da eta abuztuaren 13ko arratsean, "Irlandako gizon indartsu guztiei" dei egiten die, Derry-ra joan daitezten Bogside defendatzera-"Behar zaituztegu eta jaten emango dizuegu"- . Bide batez, iparralde osoan protestak antolatu zitezen eskatu zuten, hirian jasaten ari ziren presioa arintze aldera.

Arratsalde berean, Jack Lynch Lehen Ministro Irlandarrak, iparraldera pakea mantentzeko indarrak bidaltzeko eskatu zion ONU-ri eta hospitale militarrek ezarri mugan, Dublin-ek "besoak gurutzatuta ezin zuela jarraitu" aldarrikatuz.

DCDA-ren deialdiari jarraiki, Newry, Strabane, Belfast eta beste hainbat herritan protestak antolatu ziren Hauetako askok liskarretan amaitzen dute, polizien errekurtsoekin amaituz eta Derry-ra iritsi behar ziren errefortzuak bertan behera geldituz. Liskar larrienak Belfast-en gertatzen dira, pil pilean zeuden haserre sektarioak lehertzen direlarik.

Bi egunetan 7 lagun hil, milakak etxeak galdu eta eremu katolikoetako kale osoak -Bombay Street eta Hooker Street besteen artean- situak izan ziren Belfast-en. Poliziak 4 katoliko, tartean 9 urteko ume bat, erail zituen. Bi protestante IRA-k eta errepublikar bat talde loialistek. Armada Britainiarrak ez du abuztuaren 15 arte ezer ere egingo.

Irudiak:

- **Armada Britainiarreko soldaduak Bogside inguruan lekua hartzen 1969ko abuztuaren 14an.**
- **B-Specials-ak Waterloo Space-en**
- **Manifestari gazte bat.**

19. Free Derry

Tropa britainiarren sarrera, polizia eta unionismoaren gaineko garaipen moduan ikusi zen, eta Free Derry-k Freedom Fleadh-arekin ospatu zuen. Batzuentzat armada britainiarra Stormont-eko gobernu salbatzera etorri zen, nahiz eta barrikadetan egon ziren ia guztientzat armada britainiarra iristek liskarren amaiera eta polizia, B-Specials eta talde loialisten jarrerak malgutuko zituen indartzat hartua izan zen.

Derry-ra iritsi ziren lehen soldadu britainiarrak te eta irribarreekin ongi etorriak izan ziren. Baina egun batzuen buruan, armada, botere berezien lege gorrotatua erabiliz katolikoek etxebizitzak asaldatzen ari zen. Akordio politikorik ezean, armada gero eta gehiago lotzen zen gobernu unionistarekin.

Duke Street-eko gertaeren ondoren proposaturiko poliziaren erreforma ere beranduegi zetorrela ikusi zen. Free Derry ezin zen Stormont-en menpera erori.

Gazte askorentzat armada poliziaren lekua hartzen ari zen unionismoaren beso armatu bezela eta liskarrak gero eta maizago gertatzen ziren.

Irailaren 23an, William King, protestante heldu bat, liskar sektario batean hil zen Diamond-en. Gertaera hauen ondoren, Free Derry inguruan kontrol britainiarrak ezarri ziren. Kontrol hauen xedea, Bogside-eko biztanleak eremu barruan mantentzea zen, barrikaden xedea -urri bukaera arte bere horretan iraungo zutenak- polizia eta armada eremutik kanpo mantentzea zen bitartean.

Irudiak:

- **Free Derry-k Freedom Fleadh-ekin ospatzen du.**
- **DCDA-ko kideak, Paddy “Bogside” Doherty barne, barrikadak lerro zuri sinbolikoekin ordezkatzeko. Lerro hauek ez zituen inoiz armada britainiarrak gurutzatzen aurretiko baimenik gabe.**
- **Polizia militar britainiarrak eta poliziak Free Derry-n sartzeko baimena lortzen dute, 1969ko urria.**

20. Gerra Bidean

1970eko apirilean, Derry-ko errepublikarrek Easter Rising (Pazkoko altxamendua) urteurrena ospatu zutenean, gazte eta armada britainiarren arteko liskarrak ohikoak ziren.

Lehengoarekin konparatuz guztiz ezberdina zen egoerari erantzuteko ikuspegi ezberdinek, mugimendu errepublikarraren zatiketa ekarri zuen 1970eko urtarrilean: Ofizialak eta Probisionalak. Biak ala biak, 1968tik ematen ari ziren gertaeretzat probestu ziren. Nerabe errebeldeen artean erreklutamendua nahiko erreza zen, mugimendu errepublikarrak zuen babesa iparraldeko katolikoaren artean, hamarkadatan izan zuen handiena baizen. IRA-ko bi zatiak borroka armatuko kanpainarako prestatzen ari ziren.

1970eko ekainean, IRA-ko hiru kide, Thomas McCool (40), Joseph Coyle (40) eta Thomas Carlin (55) McCool-en bi alabekin batera, Bernadette (9) eta Carol (4), hilik suertatu ziren garaia baino lehen lehertu zen bonba baten ondorioz Creggan-en. Gizon hauek, bonbak prestatzen aritu ziren, Bernadette Devlin diputatua Bogside-eko borroketan parte hartzeagatik atxilotu ondoren, Bogside-en lehertu ziren borroketan erabiltzeko. Bernadette 4 hilabeteko kartzela aldira kondenatua izan zen.

1970eko urrian liskar berriak lehertzen dira. Aldi honetan agertzen dira IRA-ren kanpaina mugatu baten hasierako lehen zantzuak, irailaren 15etik urte bukaera arte 7 leherketa gertatuaz.

Irudiak:

- **Armada Britainiarra jarduera betean Westland Street-en**
- **Armada britainiarra negar eginazteko gasak jaurtitzen.**
- **Rosville Street, 1970eko Pazko egunean.**

21. Gerra Bidean

1970ean indarkeria egoeraren gogortze konstante bat ematen da ipar Irlanda osoan. Martxoaren 1ean, Derry-n lehen soldadu britainiarra hiltzen da leherketa baten ondorioz Westland Street-en.

Uztailean, soldadu britainiarrek Seamus Cusack (28) eta Desmond Beattie (19) erail zituzten, armada britainiarra eta komunitatearen artean egon zitezkeen zubi guztiak eraitsiz, inoiz berreraikiko ez direnak.

Uztailaren 8an, Cusack William Street-en tirokatu zuten. Atxilotuko zuten beldurrez, ez zuten eremuk hospitale batera eraman eta Letterkeny bidean, Donegaletik 22 km-tara, odol hustuta hil zen. Cusack-ek, tirokatu zutenean, armarik ez zeraman arren, armada britainiarrak pistolerotzat akusatu zuen. Gertaera hauen ondorengo liskarretan, Beattie, tiroz erail zuten Bogside-en eta armadak terroristatzat akusatu zuen, nahiz eta forensearen azterketak lehergailurik ez zuela manipulatu argi esan.

Gertaera hauek hainbat istilu jarraitu eta bortitz sortu zituen. Horretaz gain Bligh's Lane-eko base militar britainiarra inguratu eta IRAren hainbat ekintza eman ziren. SDLP alderdi berriak, gertaera hauen ikerketa publikoa eskatu zuen. Eskaera ukatu zitzaientean Stormont-etik erretiratu ziren. Cusack eta Beattie-ren errugabetasuna Tony (Lord) Guifford-ek zuzendutako herri ikerketa baten ondoren aldarrikatu zen.

Uztailaren 24an, Damian Harbin (9), armada britainiarraren kamioi batek zanpatzen du Bogside-en.

Irudiak:

- **Armada britainiarra William Street-en.**
- **Umeak armada britainiarraren gidatze basatiaren aurka protestan. 1971-an armada britainiarrak bi ume erail zituen ibilgailuekin zapalduta.**
- **IRA Creggan-en**

22. Internamendua

Indarkeria zabaltzen doan heinean, gobernu britainiarrek, Stormonteko buru unionistek bultzatuta, epaiketa gabeko internamendu edo kartzelaratzea indarrean jartzen du. Neurri hau errepublikarren aurka erabilia izan zen aurreko hamarkadetan estatuaren sorreraren ondoren.

Abuztuaren 9ko gauean, "Demetrius" operaziaren izenpean, armadak eta polizia etxebizitza ezberdinetan buruturiko sarekadan, 342 gizona atxilotu zituzten iparraldean zehar. Hala ere, informazio zerbitzuen akatsak agerian gelditzen dira, IRA-ren azpiegiturari berebiziko kalterik ez baitio eragiten operazio honek. Derry-n 16 lagun atxilotu zituzten, tartean errepublikarrak ez zirenak ere.

Hugo Herron (31) Henrietta Street-en erail zuen soldadu batek.

Internamendu erregimenak Derryko biztanleria abertzalea haserretu, eta barrkada berriak eraikitzen dituzte. Free Derry berpiztu da. IRAko patruila armatuen presentzia inoiz baino handiagoa da. Ordu gutxi tartean 6 soldadu britainiar zaurituta gertatzen dira. Iparralde osoan, 17 lagun hilik suertatzen dira internamendu erregimena indarrean jarri eta 48 orduko epean, horien artean Derry-n tirokatua izan zen soldadu britainiar bat. 7.000 lagun inguruk beren etxeetatik ihes egiten dute.

Internamenduak Free Derry-ko iritzi publikoa, 1969tik ikusi ez zen bezala elkartzen du. Protesta eta indarkeria eguneroko ogia da, eta desobedientzia zibileko kanpaina bat abian ipintzen da. 130 zinegotzi ez unionista baino gehiagok bere karguak uzten dituzte eta tasa eta alokairuen greba martxan ipintzen da.

Haserrea eta amorrua are eta gehiago handitzen da atxiloturiko asko, "kaputxadun gizonak"(atxiloturiko pertsonen jartzen zitzaizen kaputxaren ondorioz harturiko izena), torturatuak izan direnaren berria zabaldu ondoren.

Irudiak:

- **Atxilotuak torturatuak izan direnaren ablbistea zabaldu bezain laister, haserrea eta erresistentzia handitzen du Free Derry bezelako eremuetan.**
- **Derryko ekintzarako emakumeen batzordeen mobilizazioa**
- **IRAko buruzagien prentsaurreko bat Bogside-en, Internamendua martxan jarri ondoren. Ezkerretik eskubira: Martin McGuinness, Daithi O'Conaill, Sean MacStiofáin, Seamus Twomey.**

23. Free Derry

Free Derry-ren berpizteari Britainiar armadak emaniko erantzuna abuztuaren 18 izan zen. 1300 tropa, helikoptero eta furgona blindatuekin barrikadak erausteko lanera abiatzen dira. Eamonn Lafferty (19), IRAko bolondresa, hilik suertatzen da operazio honen baitan emaniko tiroketa baten ondorioz. Halere, barrikadak erausten dituzten bitartean, berehala eraikitzen dira ordeztuko dituzten berriak.

John Hume eta SDLPko beste bi buru, britainiarren erasoaldiren aurkako protestetan atxilotuak izan ziren. Irailaren 6an, SDLPko hiru buruzagiak epaitegira agertu behar duten egun berean, Anette McGivigan (14), armada britainiarrak tirokatuta hilik suertatzen da.

Irailaren hasieran, Armada Britainiarrak erasoaldi zabalagoak abian jartzen ditu Free Derry-ren aurka. Irailaren 9an, Gary Gormley (3), furgona blindatu batek bere ume-aulkia zapaldu ondoren hiltzen da. Hilketaren arrazoi ofizial moduan trafiko istripua izendatu zuten. Irailaren 14an, William McGreanery (41), Bligh's Lane-ko armada britainiarraren zelatatze postu batetik soldaduek tirokatuta hiltzen da. Azaroaren 6an, 6 haurren ama zen Kathleen Thompson (47) Rathlin Drive-eko (Creggan) bere etxeko atzeko lorategian zegoela soldadu britainiar batek tirokatzen du.

1971 amaitzerako, 6 soldadu britainiar hil ziren Free Derryn. IRAko bolondres bat ekintza batean hil zen. Bitartean soldadu britainiarrek 6 zibil erail zituzten.

Irudiak:

- **IRA Brandywell-en**
- **Free Derry-ren aurkako erasoladien kontrako manifestariak urezko kañoi bidez ureztatuak.**
- **Britainiar armada Free Derryn.**

24. Bloody Sunday edo Igande Odoltsua

Free Derry-ren izateak, britainiar politikariak zein unionistak haserretzen zituen bitartean, internamenduak eremu horretako biztanleen determinazioa indartzen zuten.

1971ko eguberri egunean People's Democracy eta Sinn Fein-ek manifestazioen debekuak beteko ez zituztela aditzera eman zuten eta urtarrilaren 2an berdina egingo du NICRA-k. Martxa ilegal hauek agintari klasearen haserrea handitzen dute.

Urtarrilaren 22an, ehundaka manifestarik, NICRA-k Maglliganeko internamendu gunera antolaturiko martxan parte hartzen dute. Paratxutista britainiarrak, Maglliganeko hondartzan manifestariak erasotzen azaltzen dituzten irudiek, giroa gori gorian ipintzen dute. NICRA-k urtarrilaren 30ean martxa bat antolatzen du Derry-n.

Brian Faulknerrek gidatutako gobernu unionistak, Free Derry hausteko eskatzen die britainiarrei. Faulknerren jarraitzaile diren bi diputatuk eremu itxiekiko (no go areas) gobernuak duen jarrera biguna dela eta dimititu egiten dute.

Lurreko indar britainiarren komandante den Robert Ford generalak, Bogsideko gazte buruzagi batzuen aurka tiro egitearen beharraren posibilitateaz idazten du.

Urtarrilaren 27an IRA-k poliziaren bi ofizial erailtzen ditu Creggan Roaden buruturiko segada batetan.

Urtarrilaren 28an britainiar gabineteko batzorde batek, Derry-ko martxarako segurtasun planak onartzen ditu.

Urtarrilaren 29an, armada eta poliziaren komunikatu batek, martxaren antolatzaileak, hurrengo eguneko indarkeri ekintza guztien arduradun egiten ditu. Egun berean, Peter McLaughlin eta Peter Robson polizien tiroz zaurituta gertatzen dira William Street-eko istiluetan.

Hurrengo egunean, paratxutistak Derry-ra iritsi direnaren berria ezagutzen da.

Irudiak:

- **Manifestariak, britainiar armadaren bortizkeriari aurre egiten**
- **Maglligan-eko hondartzan, 1972ko urtarrilaren 22an.**

25. Bloody Sunday

Internamenduaren aurkako martxak 15.000 lagun elkartu zituen Creggan-en. Egun hotz eta eguzkitsua zen. Laster zabaldu ziren Bogside-eko irteera guztiak txarrantxaz hesitu zirenen berriak eta paratxutisten presentzia hauen atzean. Halere, martxara bildu zen jendetzaren ondorioz, poztasun giroa zen nagusi. Ibilbidea Creggan-etik hiri erdira zihoan, Free Derry-n Brandywell eta Bogside-tik pasatu ondoren. Manifestazioa arratseko hiruren ondoren hasi zen.

IRAren bi taldeak distantziara mantenduko zirena agintzeak, eguna bake giroan joango zenaren konfiantza indartu zuen. Honela, manifestazioak familia ugari erakarri zituen.

Martxan zehar, armadaren postu bakoitzetik manifestariak algarako pasatzen ziren. William Street-en, NICRAko antolatzaileek hasierako ibilbidea aldatu zuten, Rossville Streetera desbideratuz, ondoren Free Derryko hormara zuzentzeko. Halere, manifestari gazte askok, kasurik egin gabe William Street-en jarraitu zuten, hiri erdirako sarrera ixten zuten armadako 14. hesira zuzenduz. Hau izan zen manifestariak eta Britainiar armadaren arteko istiluak hasi ziren tokia- gasak, presioz botatako ura eta gomazko balak, harri edo manifestariak eskuartean zuten edozeren arteko borroka.

Bitartean, Ford Generalak 14. hesiaren atzetik gertatzen ari zen guztia begiratzen zuen.

Free Derry-n, manifestari gehienak hitzaldiak entzuteko bilduta zeuden, horien artean Bernadette Devlin eta Lord Fenner Brockway, William Street-etik tiro hotsak entzuten hasi zirenean.

Irudiak:

- **Internamenduaren aurkako manifestariak Cregganen biltzen 1972ko urtarillaren 30ean, Bloody Sunday edo Igande Odoltsuan.**
- **Manifestazioa William Street-etik pasatzean.**
- **Britainiar armadarekin istiluak William Street-en. Lehenengo planoan eserita, Jim Wray.**

26. Bloody Sunday

Arratseko 3.55etan, William Street-en ematen ari ziren istiluetatik urrun, armada britainiarra tiroka hasten da. John Johnston (59) eta Damian Donaghy(15), balaz zauritzen dituzte. John Johnston hilabete batzuk beranduago hilko da, 1972ko ekainean, eragindako zaurien ondorioz.

Arratseko 4.07etan soldadu britainiar batzuk Rossville Streetera mugitzen dira, manifestarien aurka berriro tiroka hasiaz.

Jack Duddy (17), Edward Daly apaizaren ondoan korrika zihoalarik, heriotza zauriez erortzen da Rossvilleko pisu blokeen atarian, bizkarrean jotako tiro baten ondorioz.

Alana Burke (18), ibilgailu blindatu batek harresi baten aurka zapaltzen du.

Peggy Deery (31), hanka batean tiroz zauritua gertatzen da Chamberlain Street-en eta babesean jartzen laguntzen ari den Patrick McDaid (25) ere zaurituta gertatzen da.

Patrick Campbell (51), Rossville-eko pisu blokerak korrika doalarik zauritzen dute.

Michael Bradley (22) eta Mickey Bridge (25), Jack Duddy hiltzen ikusi ondoren, soldadu britainiarrekin izandako istiluetan zauritzen dira.

Daniel McGowan (38), Patrick Campbell babesera eramaten laguntzen ari denean zauritzen dute.

Hugh Gilmour (17), Rossville-eko pisuetara korrika doalarik tiroz hiltzen dute.

Michael Nelly (17), Michael McDaid (20), John Young (17) eta William Nash (19) Rossville Streeteko barrikada batean erailten dituzte. William-en aita, Alex(51), bere semea laguntzera doala zauritzen dute.

Irudiak:

- **Jackie Duddy tiroz hiltzen duten tokitik eramaten.**
- **Hugh Gilmour hilda Rossvilleko pisuetan, Derryko eskubide Zibilen aldeko elkarteko pankartaz estalirik.**
- **Michael Nelly barrikadetan hilda dagoelarik Michael ezkerretik dator, bala batek jo eta hil baino segundo batzuk lehenago. Argazkian Daniel Hegarty ere ikus dezakegu, 6 hilabete beranduago soldadu britainiarrek hilko zutena.**

27. Bloody Sunday

Kevin McElhinney (17), Rossvileko pisuetako atera arrastaka doalarik tirokatu eta hila izan zen.

Glenfada Parkean:

Joseph Friel(22) zaurituta gertatu zen

Daniel Gillespie (32), buruan jotako tiro baten ondorioz konorte gabe erori zen.

Michael Quinn (17), aurpegia gurutzatuko zion bala batez zauritu zuten sorbaldan.

Joseph Mahon-ek (16), hanka batean jaso zuen tiroa eta hildakoaren egin zuen soladadu britainiarrak etorri zitzaizkionen.

William McKinney (17), bizkarrean jasotako tiro batez hil zen, zaurituak laguntzera zioanean.

Patrick O'Donnell (41), emakume bat tiroetatik babesteko gainera bota ondoren zauritzen dute.

Jim Wray (22) lurrean etzanik zen, lehen tiroek zaurituta eta mugiezinean, paraxutista bat gerturatu eta bertatik bertara bizkarrean tirokatu zuenean.

Geraldb Donaghey (17) eta Gerard McKinney (35), Abbey Parkean hil zituzten tiroz.

Patrick Doherty (31) Joseph Place-en erail zuten leku seguru batetarantz arrastako zihoalarik.

Bernard McGuigan (41), bere segurtasuna arriskuan zegoela jasotako oharrei kasurik egin gabe, Patrick Doherty hilzorian zegoen tokira abiatu zen musuzapi zuri bat astinduaz. Bidean, Bernard-ek, buruan tiro bat jaso zuen.

Armada britainiarrak buruturiko tiroketak iraun zituen 20 minutuetan, IRA ofizialak eraginik gabeko hiru tiro bota zituen.

Irudiak:

- **Michael Quinn, Glenfada Park-eko tiroketan zaurituta.**
- **Jim Gray (eskubian, oinak soilik ikusten zaizkiona) eta William Mckinney Glenfada Park-en hilda. Joe Mahon espaloian zaurituta.**
- **Manifestariak Glenfada Park-en tiroetatik babestuz.**

28. Bloody Sunday

Armada britainiarrek, biktimak terrorista eta pistoleroztat salatu zituen, bere soldaduak etengabe tirokatuak izan zirela argudiatuz. Halere, tiroek ez zuten ez soldadurik ezta ibilgailurik ere jo.

Geroago Derry-ko Hubert O'Neill koronelak sarraskia “eraiketaren adibide argi eta garbitzat” jo zuen. Gertaeren lekuko izan ziren ehundaka herritarrak ados zeuden.

Otsailaren 1ean, Ted Heath lehen ministro britainiarrek, Epaitegi Goreneko lehendakaria zen Lord Widgery-ren ardurapean ikerketa publiko bat egingo zela iragarri zuen. “Gerra militarraz gain, propagandako gerra batean gaude murgilduta” esan zion lehen ministroak Widgery-ri.

Bere ikerketan, Widgery-k, gertaeren lekuko izan ziren zibil ia guztiei deklarazioa hartzeari uko egin zion. Hori gutxi balitz, ikerketa, Coleraine-n egin zen eta ez Derry-n. Soldaduek anonimatuan eta publikoarengandik babestuta eman zuten bere deklarazioa. Geroago jakingo zen, deklarazioak moldatuak izan zirela, gertaeren bertsio britainiarrarekin bat egin zezaten.

Bere ondorioetan, Widgery-k armada errugabetzen zuen, “ez dago frogarik, zauritua edo hila izan den biktimarik, bonba edo arma bat zeramala, tirokatua izan zela esateko...susmo handiak daude...biktimetako batzuk, tiroka edo bonbak manipulatzan aritu zirela...beste batzuk estu-estu laguntzen aritu ziren bitartean” bezelakoak esanez.

Wilford koronela, armada britainiarreko komandantea, Inperio Britainiarreko Orden batez kondekoratua izan zen. Bere ondokoa, Mike Jackson, beranduago, armadako buru izendatu zuten.

Irudiak:

- **Jendea Barney McGuigan tirokatu zuten tokian biltzen da.**
- **Paddy Wash Paddy Doherty hilzorian dagoen tokira iristen saiatzen da.**
- **Lord Widgery , “Justizia” epaitegiko lehendakaria**

29. Bloody Sunday

Bloody Sunday-ko biktimen hiletek, jende andana bildu zuten, hauen artean mundu osoko ordezkari politiko, zibil eta erlijiosoak. Hileten egun berdinean, Dublineko enbaxada britaniarra sutu zuten. Eskola eta lantoki ugari itxi ziren hegoaldean eta iparraldeko eremu abertzaleetan, biktimen familiekiko elkartasun keinu moduan. Hegoaldeko gobernuak, “dolu egun nazional”-tzat izendatu zuen hileta eguna.

1973an, NICRAk, lehen urteurreneko martxa antolatu zuen, nahiz eta 1974tik aurrera egun honen antolaketa Sinn Fein-en esku gelditu. 1974an, Brigid Bond-ek, Rossville Street-eko oroitarria inauguratu zuen..

1989an Igande Odoltsuko ekimena (BSI) sortu zen, gertaeren ikerketa egoki bat lortzeko kanpaina egiteko xedez.

Bloody Sunday-ko 20. urteurrenean, “Justizia Bloody Sundayko gertaerei kanpaina” (BSJC) sortu zen, Widgery-ren ikerketaren ondorioen bazterketa eskatu, biktimen errugabetasun formala eskatu eta gertaeren arduradunen prozesamendua eskatzeko xedez. BSI, giza eskubideen aldeko Pat Finucane Gunea (Pat Finucane talde paramilitar loialistek erail zuten abokatu bat zen) izatera pasatzen da, Bloody Sunday Weekend Committee urteurreneko oroitzapen ekimenak antolatzeko ardura hartzen duen bitartean.

Bloody Sunday-ren 25. urteurrenean, 40.000 lagun elkartu ziren egia eta justiziaren aldeko borroka jarraituaren alde.

1998an, Justizia Bloody Sundayko gertaerei kanpainak, biktimen senideek gidatua, ikerketa berri bat abian jartzea lortzen dute, oraingoan Lord Saville-k gidatua.

Irudiak:

- **Bloody Sundayko 28. urteurreneko afixa**
- **Hamairu zerraldo St Mary elizan, Creggan.**
- **25. urteurreneko ekitaldiko manifestazioko pankartak.**

30. Bloody Sunday

Bloody Sunday ikerketak, 2010. urteko Ekainaren 15ean argitaratu zuen bere txostena. Ondorio nagusia, hildako eta zauritu guztiak errugabeak izan zirela, Guildhall plazan elkartutako milaka pertsonen arindura handia eta txalo zaratatsurekin hartua izan zen.

Familien izenean egindako deklarazio bat adierazten zuen: “Kaltetuak, errebindikatuak izan dira. Paraxuta erregimentua desohoratua izan da. Gertatutakoaren egia etxera ekarria izan da azkenean. Widgeryren gezur galanta biluztua izan da.”

Ikerketa hau, Britainiar edo Irlandar historian egon den prozedura legal luzeena izan da. Saville Jauna eta bere bazkide epaileak, William Hoyt kanadiarra eta John Toohey australiarra, 921 lekuko entzun eta beste 1500 deklarazio kontutan hartu zituzten. Txostena, 5000 horrialdetik gorakoa izan zen.

Derryko pertsona batzuk harrিতa gelditu ziren, Derek Wilford ofizialari eta soldadu batzuei Errua ezarri zietelako. Tribunalak, politiko eta militar buruek izan dezaketeen eginkizunatik, bere begirada baztertzearen tradizioa jarraitu izan zuen.

Baina ezer ez ezin du gutxitu, Derryn zegoen iluntasuna argitu duen poz eta alaitasun sentsazioa, ezta murriztu ere, ia ezinezkoak ziruditen oztipoak gainditu dituzten familien arrakasta izugarria.

Bloody Sunday-k sakonki zauritu zuen Derry. Gure hiria, zauri hauetatik sendatzen hasi dela espero dugu.

Irudiak:

- **Alana Burke, Bloody Sunday-n zauritua, Bloody Sundayren ikerketaren txostenaren askapena ospatzen du beste familiartekoekin, 2010. urteko Ekainak 15.**
- **Bloody Sunday-ko familiak Free Derry kornerran elkarturik, ikerketa hasiera egunaren aurreko gauean.**
- **Edward Somers, Newdigateko Lord Saville, Chair, eta William Hoyt, Bloody Sunday ikerketaren agiri ofiziala. Somers, John Toohey-tik aldatua izan zen 2000. urteko irailan.**

31. Motorman operazioa

Bloody Sunday-k huts egiten du bere helburuetan. Stormonteko gobernuak martxoan erortzen da, Free Derryk zutik dirauen bitartean. Bitartean, errepublikazaletasunaren babesak, gora egiten du eta gatazka gogortu egiten da. Urtarrilak 30aren ondorengo sei hilabetetan, Free Derry-n, 15 lagun hil ziren.

Manus Deery (15) eta James Casey (57), soldadu britainiarren tiroen ondorioz hil ziren. Gerald Doherty (16), Colm Keenan (19), Eugene McGillan (18) eta John Starrs (19) IRAko bolondresak eta 8 soldadu britainiar. Hauen artean William Best (19), Creggan jaioterrian hil zen laneko baimen bat gozaten ari zela. William Best-en hilketak bakearen aldeko mobilizazio bat sortu zuen Derry-n, motza izan arren, eta baita IRA ofizialaren su-eten bat ere.

Uztailaren 31ko gauean, armada britainiarrak Motorman Operazioa jartzen du martxan, Free Derry eta eremu itxiek (No-Go areas) amaitzeko xedearekin. 21.000 soldadu, tanke eta buldozerren laguntzarekin, langileak bizi ziren eremu abertzaleetan sartzen dira.

IRA-k, maila horretako eraso bati aurre egiteko prestatuta ez dagoela jakitun, eremu itxiak utzi ditu, biztanleek erresistentzia gutxi aurkezten dutelarik.

Urrengo goizean, Free Derry militariki okupatuta esnatzen da. Armada britainiarrak kanpamenduak ezartzen ditu, Piggery Ridge-ekoa (Creggan) bezalakoak. Urrengo 22 urteetan, Derry, mendebaldeko Europako gune militarizatuenetakoa bihurtzera iristen da.

Irudiak:

- **Free Derry-ko izkinan eginiko kontzentrazio baten afixa, Free Derry-ko azkenengo eguna izango zenean.**
- **Creggan, Motorman operazioan**
- **Britainiarren inbasioa Free Derry-n**

32. Motorman Operazioa

Erresistentzia armaturik izan ez bazen ere, soldadu britainiarrek bi nerabe erail zituen tiroz Motorman operazioan.

Barrikadak eraisteko, Centurion tankeak gerturatzeko hasi zirenean marine britaniko eta ingeneriek jarraituta, Daniel Hegarty (15), operazioaren neurria ikustera irten zen. Bertatik bertara botatako bi tiro jaso zituen buruan. Seamus Bradley (19), armarik gabe zihoan IRAko bolondresa ere, tirokatua izan zen St John ikastetxearen inguruan. Ondoren autopsiak esango zuen, Seamus, bost tirok jo zutela eta laguntza medikurik gabe, balek eragindako zaurien eraginez hil zela. Bi nerabeak pistolero eta terroristatzat klasifikatuak izango ziren urrenez urren.

Motorman Operazioak Free Derry zen gune fisikoarekin amaitu zuen, baina horrek ez zuen esan nahi Free Derry-rekin amaitu zutenik. Free Derry-ko pareta, eremuko epizentru politiko eta emozionala bihurtu zen -izenak dioen bezela, Derry Askea, urte luzeetako gatazkan, independentziaren arima eta askatasun egarriaren sinbolo bezela ezaugarrituko zen.

“Orain Free Derry-Derry Askean sartzen ari zara” Lecky Road-eko 33. zenbakiko pareta batean irauten du, biztanleen bihotzetan, sentimendu horrek dirauen bezalaxe.

Irudiak:

- **Free Derry, kolpatua baina ez garaitua okupazio militarrengandik**
- **Eguneroko bizitza lurralde okupatu batetan.**

33. Free Derry-ko museoa

Estatuaren botereari aurka egin zion langile komunitateari, britainiar klase politiko eta militarren erantzuna, kolean buruturiko sarraskia izan zen.

Bloody Sunday, Bogside-ek Free Derry-gatik ordaindu behar izan zuen ordainsaria izan zen.

Zapalkuntzaren aurka borrokatzera ausartuko zirenei zuzendutako ikasgaitzat bideratu zuten

Bloody Sunday-k Wounded Knee, Darfur, Grozni, Gaza, Faluya, Sartaguda, Gernika, Gasteiz... gogora ekartzen dizkigu.

Bloody Sundayko biktimen senideen kanpaina, egiaren aldeko borroka heroikoaren adierazlea da. Beraein irmotasun apurtezin horrek, balio beza munduko beste lekuetan estatuaren indarkeria jasan dutenei bidea argitzeko.

Rise like Lions after slumber
In unvanquishable number -
Shake your chains to earth like dew
Which in sleep had fallen on you -
Ye are many - they are few.

Zutitu, iratzarritako lehoiaren antzera
jendetza garaitezinen era
Kendu zuen kataiak, bota lurrera adorez
lo zeundeten bitartean soinera erori zaizuen ihintza lez
Zuek asko zarete eta haiek ez!

Free Derry, guztiok jomuga eta borrokatzen dugun mundu hobeago horren zati bat da, egunen batean jendarte guztiak gozatuko duen esperantzaz, makurkeri, zapalkuntza eta indarkeri guztiez libre- herriaren borondatea soilik gailenduko den mundu bat, legea eta justizia bat izango den mundu bat.

Hemen, justiziaren alde borrokatzen duena ez da arrotza. Free Derry-n, Borroka horretan hildako inor ez da ahazten.

Irudiak:

- **Eskubide Zibilak, Bogsideko borroka, Free Derry, Bloody Sunday. Derry 1969-1972**